

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa guztietan bezala, gurean ere bezeroak ditugu jomuga, haiek gabe ez dugulako luzaroan iraungo. Horregatik aplikazio hau sortzerako garaian haiengan jarriko dugu arreta, erraztasuna, segurtasuna eta erostasuna ahalbidetuz.


Merkatuari dagokionez, gurea dibertsifikatua eta masiboa dela argi dugu. Izan ere, oso bestelako produktuak eskeintzen ditugu, hau da, bezero batek etxea garbitzeko zerbitzua eskaini dezake eta beste batek haren eskuekin egindako poltsa bat. Baina, egia da masiboa ere badela, erabiltzaile batek baino gehiagok zerbitzu edo ondasun bera nahiz antzekoa eskaini baitezake. Hots, adin txikikoak zaintzeko prest egon daitezke 4 edo 5 pertsona, baita artisau moduan egindako 4 bufanda saldu ere.

Aplikazioa aurrera atera ahal izateko ezinbestekoa da bezero potentzialak identifikatzea eta batez ere haiengana bideratzea. Zerbitzu edo ondasunak eskaintzearen kasuan, interneten langabeziaren estatistika desberdinak arakutzen ibili gara, izan ere, gure helburua haiei lana ahalbidetzea da. Beraz, horiek alderatu ondoren, ondorioztatu dugu 18-25 urte bitarteko gazteak izango ditugula gehienbat, %40-%50 inguruko desenplegatu tasa baitago. Adibidez batxilergoa bukatu eta gazte askok haien unibertsitatea

ordaintzeko dirua behar dute, beraz, gure aplikazioan matematikako partikularrak emanez, etxe bat garbituz... diru kopuru bat atera dezakete. Gainera, generoari dagokionez, emakumeak izango direla uste dugu, haien tasa handiagoa baita. Gehiago zehaztuz, gure APPEan maila ekonomiko baxua duten jendea ikusten dugu, baita ekonomikoki egoera larrian daudenak ere, haiek baitira diru gutxien dutenak eta haren beharra gehien somatzen dutenak. Haiek izango dira, batez ere, gure aplikazioaz baliatuko direnak diru kopuru bat atera ahal izateko, bizimodu duinago baten bila dabilzanak. Baina, ez dizkiogu inorri atea itxikiko, edozein genero eta adineko pertsonak ongi etorriak izango dira, denei laguntzea eta denen beharrak asetzea dugulako helburu. Hots, 36 urteko ama den emakume bat langabezia geratu eta haren alabari jaten emateko dirurik ez duenez, gure aplikazioan bertan, berak eskuz egindako bufandak, karterak... saldu ditzake, baita bere burua, etxe bat garbitzeko eskeini ere. Baina, 47 urte dituen gizonetzko batek ere, diru gehiago eduki nahi badu, ZUBI aplikazioan, berak egindako marrazkiak, eskulanak... saldu ditzake edo baita beste norbaiti erosketak egiteko eskeini ere.

Zerbitzuak eta ondasunak jasotzerako garaian, aldiz, bezero potentzialak ezin ditugu zehaztu. Agian adineko pertsona batek hura zainduko duen norbait behar du, baina baita ume txiki batek ere; edo guraso batek haren etxea garbitzea nahi du ala aitona batek. Horregatik adin eta genero guztiak izango dira potentzialak gure ustez, nahiz eta pentsatzen dugun aplikazioa hau, "produktua" jasotzeko, deskargatuko dutenak 35-60 urte inguruan egongo diren. Haien semeak zaintzeko, ama-aita zaintzeko, etxea garbitzeko, erosketak egiteko... beharra batez ere adin horretako jendeak baitu.

Horrez gain, martxa onean hasi ahal izateko, Euskal Herriko unibertsitateetatik zein eskoletatik pasatzeko ideia bururatu zaigu, adin horretako jendea delako batez ere gure jomuga eta argi dugulako gazteek asko dutela emateko, hala nola, gai desberdinetako partikularrak, garbiketa lanak, eskulanak egitea... Beraz, haiei gure aplikazioaren berri ematea izango dugu helburu eta parte hartzera gonbidatzea ere bai. Dagoeneko hainbat unibertsitate zein eskolak baiezkua eman digute



gure aurkezpenak bertan egiteko; hala nola, EHUko, Deustoko eta Mondragoneko unibertsitateak. Bestalde, Urretxu-Zumarragako, Haztegiko, Elgoibarko, Beasaingoko, Bergarako, Hernanitetako eskolek ere eman digute aukera gure aurkezpenak haien ikasleekin partekatzeko. Hori ondo ateraz gero, aplikazioari hasiera emateko hainbat pertsona edukiko ditugu. Oinarri bat edukitzea beharrezkoa iruditzen baitzaigu.

Hori gutxi balitz, argi dugu erosotasuna eta erraztasuna oso garantzitsua dela aplikazio batek ondo funtziona dezan. Beraz, bezeroak beharren arabera sailkatuko ditugu. Horretarako, 4 bloke desberdin aurkituko dira. Alde batetik, zerbitzua eskeintzeko botoia egongo da, haren azpian ondasunak eskeintzekoa agertuko delarik. Bietako bat klikatuz gero, formulario bat betetzea ezinbestekoa izango da, zure datuak eta eskeintzen duzuna azalduz, ondoren guk dena ondo dagoen frogatuko dugu, segurtasuna ahalbidetzea beharrezkoa delako. Bestetik, zerbitzua edo ondasuna jaso nahi dutenentzako beste bi atal egongo dira, bata bestearen azpian. Gainera, "bilaketa" deritzon aukera ere egongo da, non bertan zerren bila zabiltzan, pertsona horren ubikazioa, adina eta generoa jarri dezakezun eta horren arabera pertsona desberdinak aterako zaizkizu.



Hau guztia posible izateko eta dena ondo ateratzeko, bezeroekin harremanetan egotea eta haien beharrak asetzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, gure gmaila eta telefono zenbakia 24 orduz martxan egongo dira. Baina aurrez aurre egotea nahiago badute, gure lokalaren ubikazioa ere ahalbidetuko diegu, zeina astelehenetik larunbatera 10:00-20:00 arte irekita egongo den, ordutegi hau Covid-19-ak sortutako egoeragatik harturiko neurria da. Halere, gai hau hobetzen den eanean, gure ordutegia beste bat izango litzateke, non edozein zalantza edo ezusteko izango balitu gurekin kontaktuan jartzeko arazorik ez edukitzeko eta guk ahal dugun neurrian dena argitzeko, baita laguntzeko ere prest egongo gara.

